- Zientzia aldizkarietan argitaratu ez diren eta lehenagoko biltzarretan eta gaztelaniaz aurkeztu ez diren jatorrizko testuak onartuko dira.

- Testuak argitaratuko ote diren ebaluatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan: interesa, originaltasuna, gaiaren irismen zientifikoa eta idazkera.

- Testuak PCrako World formatuan bidali behar dira, helbide honetara: comunicaciones.sep2019@ehu.eus. Bidaltzeko azken eguna: 2019ko uztailaren 1a.

- Testuek 6.500 hitz izango dituzte gehienera jota, irudiak (taulak, grafikoak, etab.), oharrak, bibliografia, etab. barne.

- Lanak honela aurkeztu behar dira: Times New Roman 11 letra motan, lerroarte sinplearekin, justifikatu osoarekin, tabuladorerik gabe eta orga itzulerarekin paragrafo artean. Orrialdeek bi zentimetroko bazterrak izan behar dituzte.

- Testuaren hasieran izenburu nagusia jarri behar da, eta baita egile guztien identifikazio datuak ere lehentasun ordenan (izen-abizenak eta kidetza -lanbide kategoria eta unibertsitatea edo, hala dagokionean, lantokia-).

- Testuetarako, egitura hau gomendatzen da: I. Sarrera; II. Gaiaren egoera edota interesa; III. Esparru teorikoa; IV. Metodologia/Diseinu metodologikoa; V. Analisia eta emaitzak; VI. Ondorioak; Erreferentziak; Oharrak; Laguntza.

- Oharrak dokumentuaren amaieran jarri behar dira, eta salbuespen gisa baino ez dira erabiliko.

- Taulak, irudiak eta grafikoak IRUDI gisa adierazi behar dira eta Wordeko testuaren baitan egon behar dute, ordenan. Zenbaki arabiarrez izendatu behar dira eta haien edukia deskribatzen duen azpititulua jarri behar zaie. Irudiaren azpian iturria adierazi behar da. JPEG formatuan aurkeztea gomendatzen da, gutxienez 300 ppp-ko kalitatearekin eta zuri-beltzean.

- Erreferentzia guztiak testuaren amaieran jarriko dira eta APA estiloa erabiliko da.
  Erreferentzietarako arauak

  - *Aldizkariko artikulua*

    Valero, J.M., eta Carvajal, M. (2017). Organización de equipos multidisciplinares: el periodismo de datos en El País. *Textual & Visual Media*, 10, 247-262.

  - *Liburu osoa (Eskuliburuak, ikerketa monografiak, aktak, etab.)*

    - Castells, M. (2001). *The Internet Galaxy.* Oxford: Oxford University Press.
    - González-Esteban, J.L., eta García-Avilés, J.A. (Koord.). *Mediamorfosis. Radiografía de la innovación en periodismo*. Madril: SEP.

- *Liburu baten kapitulua*

  García-Avilés, J. A., eta Arias Robles, F. (2016). Análisis de innovaciones en el sector audiovisual: los casos de la productora 93metros y el Lab de RTVE, pp. 195-2018. J.M. Rodríguez (Arg.). *Retroperiodismo, o el retorno a los principios de la profesión periodística*. Madril: SEP.

Aurreko kasu guztietan, online baliabideak badira, URLa jarriko da orrialdeei buruzko informazioaren ordez, eta kontsulta eguna adieraziko da kako zuzenen artean: [Kontsulta: 2018/05/20].